

Akainak identifikatzen dituen aplikazioa

Sarrera

Akainak araknido bizkarroiak dira larruazalean odola xurgatuz bizi direnak. Gaur egun 850 espezie ezagutzen dira eta gaixotasun askoren bektoreak dira (Lyme). Gaixotasun honek artritisa, bihotzeko eta nerbio sistemako arazoak eragiten ditu.

Akainak osasun publikoko arazo bihurtzen ari dira transmititzen dituzten gaixotasunengatik. Nola lagun diezaiokegu herritarrei gaixotasunak transmititzen dituzten akainak identifikatzen?



Helburua



Euskal herriko akaina espezien argazkiak bildu eta adimen artifizialaren bidez gaixotasunak transmititzen dituztenak identifikatzea.

Horrez gain pikadurak ekiditeko dekalogoia sortu dugu.

Metodologia

Prozesu teknologikoa: Arazo honi irtenbide teknologiko bat ematen saiatu gara prototipo bat sortuz.

- Euskal herrian 5 akaina genero daude: Ixodes, Ripicephalus, Haemaphysalis, Hyalomma, eta Dermacentor. Hauetatik Ixodes genoroko akaina batzuek sortzen dute Lyme gaixotasuna.
- Zerrendatutako akaina genero hauen kalitate oneko 30 argazki erabili ditugu gutxienez.
- Teachable machine programa erabili dugu. Ikaskuntza automatikoko ereduak sortu ditugu genero ezberdineko akainen argazkiekin.



Emaitzak eta Ondorioak

Guk sortutako aplikazioak Lyme gaixotasuna sortzeko arriskua duten akainak identifikatzen laguntzen du, horretarako pikatu dizun akainaren argazkia aplikaziora igo eta horrek esango dizu akaina horrek Lyme gaixotasuna sortu dezakeen edo ez. Gure ustez, oso aplikazio erabilgarria izan daiteke gaur egun gizartean sortzen ari diren arazoak konpontzeko.

Hala ere, hau oraindik prototipo bat da eta hobetzeko hainbat alderdi ditu: argazki gehiagorekin entrenatu beharko litzateke modeloa doitasun gehiago izateko eta argazkiak profesional batek identifikatu eta errepasatzea gomendatzen dugu.